

Ziria eta getozka

LEKEITIORA JOAN eta lepo ikasi. Landareen berri ikasi! Bizkaitik, handik eta hemendik etorritako lurzaleak bildu ziren Usotegiko herri baratzearen urteurren ospakizunera. Iurretako Oromiñoko Txarroa baserriko Ikerrek ihiari, *Juncus* generoko belar jendeari, “ziria” deitzen diotela erakutsi zidan. Gure etxearen izenak ihitik ere badu eta nik ederki itaundu nuen. Eta, gero, batean eta bestean miaketari ekin.

Wikipediak dioenez, Juan Jose Arbelaizek jaso zuen Luis Mitxelena zioena: “ihia” lehen “inia” esaten zela. Nik, zirizale, Ikerren “ziria”-ren alde egingo dut. *Juncus* izen latinoa *jungere* hitzetik omen dator, hau da: batzeko, elkartzeko, uztartzeko esan nahi du. Eta umetako jolas lotu bezain entretenigarria datorkit gogora: ihi lasto bat hartu eta ziri gisa bertan sartu eta sartu pilatzen genituen bitxiloreak (*Bellis perennis*) eskumuturrekoak



Portulaca oleracea, getozka.

edo idunekoak egiteko. Teilatuak, hesiak, saskiak eta abar lotu eta osatzeko erabili izan da, baita kandela moduan ere: ihi lastoa koipetan busti eta hura zihotzen utzi. Busti, zihotu, busti zihotu, kandela osatu arte. Horra ihia ziri, zihogariaren edo ziho kandelaren zirial!

Lekeitioko Usotegian baratzeaz aritu ginenez, inguratu ziren gehienak emakumeak ziren. Giza-semeak ere baziren, baina urrutixeagotik begiratzen zuten, mokadutxoaren tartean izan ezik...

Emakume talde bat bazen, landare berezi batez ari zena. Gaztelarazko izena erabilizten zuten: *verdolaga*, hau da, getozka (*Portulaca oleracea*). Zein baino zein, nork gehien famatu ari ziren, batzuentzat sendabelarra eta beste batzuentzat jakia. Omega 3 duela, ez dakit zein zauri sendatzeko mirarizkoa dela, entsaladari aparteko grazia eransten diola...

Nik arrastorik ere ez.

Ezta ezagutu ere landarea. Jakin-egarri. Han eta hemen galdetu, eta Lekeitiarako aukera-aukerakoa dena aurkitu dut: getozka beste landareen laguntzailea da. Lurrean sakon hedatzen ditu zainak, eta ahulagoa den aldamenekoak haren segidan bereak ere luzatu ahal... Herrigintzaren irudi polita. Ea atzera joaten naizenerako, Usotegiko herri baratzean getozkari txoko bat eman dionten... ■



Sator pilak

SATORRA azpilanean ari da. Hara, hona, lagun bila ibiliko da satortxo berriak sorrarazi eta ugaltzeko. Bidean zizareak bilduko ditu. Satorrak batez ere zizareak jaten ditu. Bere txistuak pozoi antzeko bat du eta hil gabe zizareak sorgortu eta geldirik mantentzeko. Habi aldamenetan zizare biltegiak egiten omen dituzte; mila zizaretik gora dituztenak ere aurkitu omen dira. ■